# munduak guztiontzat beharko luke

## *GURE NAHIA ELKARTEA*

Gaur Ane Pirata eta Patakon Igeldoko jolas-parkera joan dira eguna pasatzera. Han ezagutu dute Nahia, parkean bizi den neskato alaia.







EZ DAUKAZU HITZ EGITEKO GOGORIK, NAHIA?
GOGOA BADU, BAINA EZIN DU. GAIXOTASUN ARRARO BAT DAUKA, BATTEN GAITZA DEITURIKOA.
ETA GAIXO DAGOELAKO EZIN DU HITZ EGIN?
LEHEN NAHIAK BAZEKIEN HITZ EGITEN, IBILTZEN, PUZZLEAK EGITEN... BAINA GAIXOTASUNAREN ONDORIOZ HORI DENA EGITEA GERO ETA GEHIAGO KOSTATZEN ZAIO.
GOGORRA DA KONTURATZEA LEHEN ERRAZ EGITEN ZENUENA DAGOENEKO EZIN DUZULA EGIN.
HORRELAXE DA. LEHEN NAHIAK, EGUNERO IKASTEN ZUEN ZERBAIT BERRIA. ETA HORI OSO POZGARRIA DA EDONORENTZAT.


GERO, BISTA GALTZEN HASI ZEN, IKASITAKOAK AHAZTEN, APENAS HITZ EGITEN... ETA ORDUAN JAKIN GENUEN BATTEN GAITZAREN BERRI.
ETA EZIN AL DA SENDATU?


NAHIAK DUEN GAIXOTASUNA OSO ARRAROA DA, ETA, ORAINGOZ, EZ DAUKA SENDABIDERIK.
TOPATU BEHARKO DUTE, BA, SENDATZEKO MODUA! LEHEN SENDATZEN EZ ZIREN GAIXOTASUN ASKO ORAIN ERRAZ SENDATZEN DIRA.
HAIN DA ISTORIO TRISTEA... BAINA NAHIA EZ DAGO TRISTE, BETI DAGO IRRIBARREZ.







## GURE NAHIA ELKARTASUNA

Gure Nahia Elkartasuna (Gipuzkoako gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko Elkartea) ekimen sozial eta irabazi-asmorik gabeko erakundea da.

2012an Nahia de Cos Cuestaren (Batten gaitza duen haurra) beharrei erantzun bat eman nahian gurasoen eta talde profesional boluntario baten bultzadari esker sortua izan zen.



Gaixotasun arraroen inguruko ikerketak murritzak dira finantziazio eza dela eta. Ikerketak diruz sustatzea da elkartearen helburuetako bat.



www.gurenahiaelkartasuna.com